



**ATAUNGO UDALA**

## **UDAKO JARDUERAK ETA FESTAK BERTAN BEHERA**

Ataungo Udalak erabaki du udako jarduerak eta ospakizunak bertan behera uztea, segurtasun- eta osasun-irizpideak kontuan izanda ez dagoelako ekitaldiak behar bezala egiteko bermerik. Hori dela eta, aurren ez da umeen udalekurik eta kirol-eskaintzarik izango, ezta auzoetako festarik eta organo-kontzerturik ere. Daukagun informazioaren arabera, jende-pilaketak nahitaez saihestu beharko dira datozen hilabeteetan ere, eta behar-beharrezkoa izango da ez erlaxatzea eta neurriak zorrotz betetzen jarraitzea, azken asteotako egoerara itzultzeko arriskua benetakoa da eta. Herriaz eta inguruaz gozatzeko aukera paregabea daukagu aurtengo udan, gure burua eta ingurukoak zaintzen ditugun bitartean. Gozatu eta zaindu!

## **TRASTE ZAHARRAK BILTZEKO ZERBITZUA MARTXAN**

Azken asteotan etenda egon da bolumen handiko traste zaharrak biltzeko zerbitzua. Maiatzaren 19tik aurrera berriro atara ahal izango dira, hilaren 1. eta 3. astearte gauean. Gogoratu aurrez Sasietara deitu behar dela (943161555) eta 21:00etatik aurrera atara behar direla edukiontzien ondora.

Zer atara daiteke? Altzariak, koltxoiak, etxetresna elektrikoak (garbigailuak, hozkailuak, ordenagailuak, telebistak...) eta tamaina handiko bestelako trasteak. Gainerako hondakinak (obra-hondakinak, kristalak, ispiluak, bateriak, pinturak, fluoreszenteak, gurpilak, jostailuak eta abar) garbigunera eraman behar dira. Mesedez, errespetatu zaborrak ateratzeko egunak eta orduak.

Era berean, gogorarazi nahi dizuegu hondakin birziklaezinak astelehen iluntzeetan atara behar direla ontzi grisean sartuta; ezin dira poltsan atara. Beraz, ontzia behar duzuenok eskatu udaletxean.

## **MASKARAK HERRITARRENTZAT**

Herritarren artean banatzeko maskarak dauzkagu, eta larunbatean, hilak 16, banatuko ditugu San Martinen, San Gregorion, Ergoienan eta Aian, 12:00etatik 13:00etara. Herritar bakoitzari bat emango zaio, harik eta izakinak bukatu arte.

Ataunen, 2020ko maiatzaren 12an.

